

Noaia !!



**Azaroaren 10ean,
IV. Erle Eguna**



Pasa ziren
ehizarako garai onenak

Usurbilgo Nekazal Produktuak

*Txüt Baserría Gure Herriko
Ondare zaharra degunez*

*Baserritarra - Nekazaria
Natura Maitale denez*

*Zaindu ditzagun bizi bai dira
Beraiek sortutakoak*

*Bai barazkiak fruitu ta okelez
edo hauen barietatez*

*Gure Kultura ta elikaduran
onbehar ta osasunez*



EROSI



HERRIKO



NEKAZAL



PRODUKTUAK

- ARBURU baserría. Tel.: 943 37 23 95
Behi esnea
- ALTZONDO-ESNAOLA. Tel.: 943 36 10 50
Txekorrak
- BERRITZAGOIENA baserría. Tel.: 943 37 28 28
Txekorrak
- GALDAGORRI baserría. Tel.: 943 36 06 39
Txekorrak, piperra, babarruna, ilarra, balna
- IARBE baserría. Tel.: 943 37 12 93
Behi esnea
- IBARROLA TXIKI baserría. Tel.: 943 36 30 07
Behi esnea
- IGARTZABAL baserría. Tel.: 943 37 00 63
Arkumeak eta ardi esnea
- OLARRI baserría. Tel.: 943 37 09 63
Txekorrak
- TROIA baserría. Tel.: 943 36 22 86
Behi esnea
- ETXETXO baserría. Tel.: 943 37 24 05
Behi esnea eta loreak
- OLAIZOLA barazkiak.
Porrua, letxuga, ilarra, azalorea
- URTINEA baserría. Tel.: 943 36 22 55
Loreak
- ARANBURU negutegia. Tel.: 943 36 64 60
Loreak eta landareak
- LARTZANDIETA baserría. Tel.: 943 37 40 98
Oilaskoak eta eztia
- SARI baserría. Tel.: 943 36 60 61
Barazkiak
- IÑAKI LABAIEN. Tel.: 943 37 15 90
Ibarrako piperrak
- OSTATU baserría. Tel.: 943 37 33 46
Barazkiak eta txerriak

Produktu hauek eros ditzakezu:

- **HARATEGIAK:** Alkorta, Arruti, Esnaola, Ramon, Txapartegi, Imanol Txapartegi
- **BARAZKIAK:** Alkorta, Charter, Dia, Eiza, Esnaola, F. Marin, Lourdes, Ugari-Arillaga

✕ BASERRIETARAKO:

Abere elikadurarako produktuen horniketa eta nekazari lanerako behar diren produktuak: ongarriak, fitosanitarioak, tresnak, barantzantza, haziak, patata, e.a.

✕ BERTAKO PRODUKTUAK:

Ardoa, txakolina, sagardoa, zainzuriak, piperrak, babarrunak

✕ LORAZANTZA ETA ETXEETARAKO:

Burdindegia, plastikoak, otarrak, txakur, katu eta txori jana



BETIKO "SINDIKATVA" ORAIN BERRITVA, JENERO GEHIAGOREKIN

Ugarte industrialdea, 12 - Telf: 943 36 11 14 - E-mail: alkartasuna@fcae.org

Txirrikitutik



Foto Dominguez, 1971ko iraila, Kalezar Udal fototeka

behar da irabazi." Aste honetako argazkia, oroigarri hori jarri zen eguneko da. Ekitaldi honetan, besteak beste, ondoko udal ordezkariak parte hartu zuten: Roke Arriola (udal idazkaria), Javier Pikabea, Ramon Pikabea, Agustin Illaramendi (alkatea), Andres Bruño, Felix Aizpurua (egun oroigarria dagoen plazak bere izena darama), Jose Miguel Aginaga, Joxe Aburruza eta Jose Antonio Altuna.

Aurtengo urte ontan, Usurbil'en, gertakizun aundi baten urte-betetzea Aegiten degu: seireun urte, Erri Bildu (Villa) egin giñala. Itzal aundiko gertakariak izan oi dina olakoak erri batentzat. Orregatik on izango da, gauza onen inguruko zertzelada historiazko batzuek eman ditzagun.(...) Manuel Lekuona." Honela hasten da Usurbil "Villa" izendatzearen VI. mendeurrenaren ospakizueni eskeinitako liburu beltz ezaguna.

Dominguez argazkilariak udalaren enkarguz, Usurbilgo Herribilduaren Fundazioaren VI. mendeurrena ospatzeko 1971ko irailaren 25etik urriaren 3a arte egindako ospakizunen inguruko erreportaje grafikoa egin zuen; baita ederki asko adierazi ere: "Reportaje fotografico de los festejos del VI centenario de la fundacion de la Villa de Usurbil (25 de septiembre a 3 de octubre 1971). Ayuntamiento de la N. y L. Villa de Usurbil (Guipúzcoa)".

Ospakizun hauen oroigarri gisa, udalak Kalezarren oroigarri bat jarri zuen eta bertan zera irakur daiteke: "1371 – 1971. Ederra bada herriagatik hiltzea, zein ederrago herriarentzat bizitzea, herriagatik behar baita bizi,

ZALOA ARNAIZ

fototeka_usurbil@euskalerrria.org

Noaua!!

Argitaratzailea : *Noaua!* Kultur Elkarte

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02

E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net

Web orria: www.noaua.com

Kazetarien koordinatzailea : Imanol Ubeda

Kazetariak: Imanol Ubeda, Amagoia Mujika eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea: Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea: Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak: Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieta, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti. Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkidetza: Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Amagoia Mujika, Garikoitz Udabe, Zalao Arnaiz eta Agurtzane Solaberrieta.

Informatika: Pili Lizaso eta Oskar Angulo

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

Aurkibidea

ZUTABEA, AINHOA AZPIROZ	4. ORR.
BERRIEMAILEAK KALEJIRAN	6. ORR.
KONTZEJU TXIKIA	10. ORR.
Azaroaren 18an zozketatuko dira alokairu sozialeko udal etxebizitzak	
EHIZA GARAIA DA	12. ORR.
ARGENTINAN IZAN DIRA ZUMARTEKOAK	14. ORR.
OIHANA BLANCOREKIN SOLASEAN	16. ORR.
HEMEN DA KULTURA HAMABOSTALDIA	17. ORR.
NOAUA! TXIKIN POESIRAKO TARTEA	18. ORR.
EGUN HAUETARAKO DEIALDIAK	22. ORR.



Usurbilgo Uclala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskal presoak

Euskal Herrerria

AZALA

"Caza" aldizkariko artxibotik hartutako irudia.

Zutabea



Gu gara ereduak

AINHOA AZPIROZ

Urriko azken astean Irango presidente Jatami Madrilen izan zen. Beste hainbat lurraldetako presidente eta ordezkariak bezala bisita ofiziala egitera joan zen, baina haiek ez bezala baldintzak jarri zituen protokolorako; besteak beste, emakumezkoak ez zituela ukituko. Eta horrek, nola ez, hautsak harrotu ditu, edo behintzat, zeresana eman du.

Irrati bateko tertulian entzun nituen hiruzpalau solaskide horri buruz hizketan. Batek Madrilgoek horrelako baldintza nolatan onartu zuten galdetzen zuen. Beste batek Jatamiren jokaerarekin ados ez egon arren, errespetatu egin behar dela zioen. Hirugarren batek, berriz, horrelako jokaerarik ezin dela errespetatu erantzun zion. Pertsona bat emakume izateagatik ez ukitzea ezin dela onartu zioen,

kultura edo erlijioek batzuei oinarritzko eskubideak ukatzea edo horrelako tratamendua ematea onartezina dela zioen.

Horrelako kasuak agertzen direnean herrialde islamiarretan emakumeak bigarren mailan daudela esaten hasten gara, gutxietsiak daudela, oinarritzko eskubideak mugatzen zaizkiela eta abar, baina beti erlijio musulmaneko herrialdeetan. Hemen, Mendebaldean, gizarte "demokratikoetan", ez da horrelakorik gertatzen.

Emakumeak libre gara hara eta hona mugitzeko, etxetik kanpora lan egiteko, kargudun postuak betetzeko, nahi dugun bezala jantzeko... Gu gara ereduak eta ez haiek. Gu bezalakoak izan behar dute.

Hori ez da horrela argi eta garbi esaten, baina komentario guztietan

antzematen da ideia hori; alegia, gure eredu jarraitu beharko luke-tela. Eta horrek izugarritzko amorrua ematen dit.

Aurrena hemen zer gertatzen den begiratu beharko genuke, beste in justiziekin gureak estaltzen jarduteko partez. Esate baterako, emakumeen adibidearekin jarraituz, zer gertatzen da hemen emakumeek etxean bertan jasaten dituzten tratu txarrekin? Eta emakumeak sar ezin daitezkeen "soziedadeekin"? Eta gizonetzkoak bakarrik eskatzen dituzten lanpostuekin? Hori jakinda, nola hitz egin dezakegu hain lasai beste "akatssez"? Ez dugu autoritate moralik horretarako, eta are gutxiago guk dena ondo egiten dugula, ereduak garela eta haiek gurera moldatu behar dutela pentsatzeko; ez emakumeen kasuan, ezta beste hainbat gaietan ere.

Zutabegileak: Luis Aranalde • Olatz Altuna • Aitziber Matxain • Ainhoa Azpiroz • Aitor Landaluze • Mikel Usabiaga

BORDATXO EDARITEGIA

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 943 37 10 42

MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen modako arropa guztia hemen aurkituko duzu

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06

PATRI

J A T E T X E A

- Eguneroko menuak
- Plater konbinatuak
- Ogitarteak

Telf: 943 36 27 25
Kale nagusia, 14

Zer diyo?



Bake Konferentziatik bake bideara!

Bake Konferentziaren amaiera dela eta, Elkarri komunikabideetan egon da azken aste hauetan. Beraz, normala da Usurbilgo Tailerrak ere iritzigune hau aprobeixatu nahi izatea herritarrei zuzeneko balantzea eta ondorioztatzen dugun proiektuaren berri emateko.

Bake Konferentziaren diseinua egin zenetik eta amaiera bitarte, 2 urte pasa dira:

Idea zabalduz, atxekimenduak bilatuz, lan metodologia egokia prestatuz; eta azkenik, 12 hilabeteotan alderdi politiko-en arteko adostasunak jorratuz.

Oso esperientzi **ausarta** inon ez baita abiatu bake konferentzi bat herri-ekime-nak bultzatua. **Zaila** izan da testuinguru politiko nahasian garatu delako, baina **emankorra** nahiz eta helburu denak ez lortu.

Hala ere, Elkarri Bake Konferentziaz egiten duen balorazioa erabat positiboa da.

Bakearen lorpena urratsez urrats irabazten joan behar den prozesua da eta konferentzia prozesu honek zenbait maila igotzeko aukera eman du. Heldutasun etapa bat amaitu eta oinarriak jarri ditu fase erabakitzaile bati ekin eta eusten jarraitzeko.

Blokeo-egoera honen aurrean bada alternatibarik.



Bake Konferentziatik Bake bideara. Konpromiso batean oinarritutako elkarrizketa eta distensio proposamena.

Informazio, parte-hartze eta bake kulturarako gizarte sarean sartu nahi baduzu, deitu 902 421 010 telefono zenbakira edota sartu zaitez www.elkarri.org webgunean.

Elkarri,
Usurbilgo Tailerra
elkarri



HERRIKO TABERNA

Astebukaeretan bokatak, plater konbinatuak, pintxo beroak...

Telf. 943 36 02 17

Euskaral presoak etxera!





gorriti
EDARITEGIA

kafe berezia

San Esteban kalea, 8
TLF 36 27 70

20170
USURBIL

EUKENE
KAMINO

Txokoalde

Arnasa eman diezaiogun ibaiari

Etixerako bidean, aurtengo azkenetako piperrak bildu eta gero, Aginaga eta Txokoalde lotzen dituen zubia igarotzen ari naizela, garai bateko argazki berezi eta malenkoniaz josia datorkit gogora: hau da, garai bateko angula arrantzaleena, bere bahe haundi eta bere kinke, kandelatxo edo dena delakoa soinean zutenekoa.

Horra nire geldialdia ekuatoriarrak azkenetako piperrak bildu ondoren, jolas moduan itxura denez alai eta irrifartsu daudela baitirudi, jateko korkoi ale batzuk arrantzatu nahian ikusten ditudanean, on egin!

Laster da angula garaia. Jada iritsi ez bada, baina aurren ere azken urte hauetan bezala txalupak erretako gasolinaren keak ibaia estaliko duen susmoa dut, lanbro edo terralari lekua hartuaz, ibaia itoaz.



Arnasa eman diezaiogun behingoz ibaiari, aurrerantzean ere angulak eta korkoiak ezagutu ahal izan daitezten, besteak beste.

Aparteko ahaleginik gabe

Zer egin dizut nik! Zer egin dizut nik begietara begiratu eta zuk ez kasu egiteko. Zer?

Herrikoak gara, eta herri honetan halabeharrez, maiz topatzen gara bertakoak. Hala ere, ez. Eta maizago topatzen, herrian ibili ohi zaren kaleetan ibiltzen garenean. Eta sarritan kalean gora zoazela ni beherantzako bidean agertu izan natzaizu, eta ez duzu ezpainak mugitzeko ahaleginik egiten. Berdin kaleak elkargurutzatzen ditugunean.

Batez ere, udan zapaltzen duzun petrila ere, nik izan dut nire azpian. Eta besterekin zaude-lako izango da, baina hortik katurik pasako ez balitz bezala geratzen zara.

Etixerako beharretan gabiltzanean ere, zuretzat oharkabean pasatzen naiz; ohartu arren dendako apalategian dauden produktuek aitza-kia ematen dizutelako.

Denbora librearen zati bat pasarazten dizun taberna ere nire aisiaren parte da; eta sartzen ikusi banauzu ere antzu zaizu, ez du eragin zipitzik (ez Urte Zahar, ez Santixabel, ezta Sagardo Egunean ere!) Zer egin dizut nik? Zer egin dizut nik begietara begiratu eta zuk – inondik inora ere- ez kasu egiteko?

Axola zatzaidazulako zuzentzen natzaizu. Baina, alderantziz, ni ez banatzaizu axola, ez daukat horretan pentsatzen jardutea baino. Bion artean batek ez badu nahi... jai!

Baina gerta daiteke – eta barkatu aurrez epaitzea, baina bizitzako apurrak hau, behintzat, erakutsi dit- delako tokian dela, delako egoeran dela herritik landa petril berean har dezakegula atsedan.

Eta, orduan ere, nik agur egingo dizut.

Orduan, ziuraski, zuk ere bai.

Egin behar ote nizukeen pentsatzen nabil...

ENEKO
HARREGUY

Kaleberri

Bizilagunak zirikatuz

Ongi etorri kronista berriei! Orain jende gehiagorekin lasaiago ibiliko gara eta tarte handiagoa izango dugu zer idatzi pentsatzeko, izan ere ez baitira berri gehiegi izaten auzo honetan. Jende gehiagorekin, ordea, baten kontuak eta besteen gertaerak jakitea errazagoa izango da.

Beno eta orain ni, kalezartar on bat naizen moduan, herritarrak zirikatzea tokatzen zait bes-tela lehertu egingo bainintzateke. Izan ere, erre-presioaren aurkako asteburuan antolatutako auzo arteko probetan, "Kalezarrek" irabazi baitzuen, argi dago genetikoki garatuagoak gaudela, ja! ja! ja! aupa Kalezar!!!

Proposamen bat egin nahi diet Sanjuanetan, umeen egunean lanean jo eta su aritu ziren guraso horiei, ez dadila geratu urtean behin egiten den antolakuntza bakar batean eta urtean zehar ere beste zerbait prestatzea animatzen ditut. Adibidez, gabonetan ere festa txiki bat antolatu

daiteke haurrentzat eta gero bazkari bat auzo-koen artean, edo udazken aldera mendi irteera bat.... Giro ona egon zen festetako egun horretan eta harremana mantentzearen auzo mailan gauza politak egin daitezke; eta gurasoek ere kontentu ikusten zirenez egindako emaitzarekin, ba beno aurrera! Lehenengo urtea izan da gurasoek egun hori antolatzen zutela eta parte hartze handia izan dute festetan, beraz, auzolan bat antolatzeko ondo legoke harremana estutzeko. Nahi izanez gero, hor bota dizuet idea.

Beno besarkada bat irakurle guztioi eta bereziki auzokoei, geroarte.



Kalezar



AINARA
URIBE

Santu Guztien eguna

Gaztea nintzenetik ezagutu izan dut egun honen berezitasuna. Urteak pasa ahala, ikusi izan dugu gero eta arrakasta gehiago duela gure hilerriak lorez eta apaintasunez beteak edukitzeak duen xarma, bakoitzak ahalegin guztia egin ohi du senditar guztien hilobiak apain eta txukun egon daitezzen. Beraz, urtean behin bada ere, adierazpena eta edertasuna eman nahian ahalegintzen gara, eta aurten bezala, eguradi onak lagundu duenez, politagoa ikusi ahal izan dugu.

Gure auzotik oso urrun ez dagoen bigarren hilerri berri bat ere badugu eta hau ere dena apaindurik ikusi ahal izan dugu egun hauetan.

Herrian baditugu loradendak eta beraiek prestatuak izan dira hor ikusi ditugun lore-sorta edo landare dotoreak. Aukera bikainak izan ditugu Etxetxo, Urtinea edo Aginagako



Aranburu lorategietan. Gustu handiz eta ilusioarekin egindako sorta ezberdinak jarri zituzten aukeran.

Esan behar, hilerri berria urrutiago dagoenez, kotxe edo ibilgailu baten beharra izaten dela bertara hurbiltzeko. Hala ere, eguraldi onari esker jende multzoa bildu zen bertan.

Atxegalde



MARIA JESUS
URBIETA



ALFONSO VIDAL

Santuenea

Sagardo berria prestatzen

Udazkenean gaude eta jadanik hotza eta euria agertu dira. Egia esan, beroa ere izan dugu eta ezin gara kexatu. Hala ere, udazkena ehizaren garaia izaten da. Larunbatetan eta igandeetan eskopeten "tiroekin" esnatzen gara. Goizean goiz, lehen orduetan abiatzen dira ehiztariak Andatzara uso "preziatuaren" bila. Batzuk bere sariarekin jaitsiko dira baina gehienak ezer gabe bueltatuko dira etxera. Beno, ezer gabe ez, beren hamaiketako ardoarekin inork ez die kenduko eta gainera mendian. Ba al dago gehiago eskatzerik?

Bestalde, esan behar da Santueneako sagardotegia hasi dela pixkanaka-pixkanaka denboraldi berria prestatzen. Oraindik asko falta da atak irekitzeko baina jadanik prestaketa-lanak martxan dira. Espero dugu aurtengo sagardoa lehengo urtekoaren modukoa izatea, hala oraindik hobea.



Hala ere, sagardo berria probatzeko aitzakia-rekin pasako gara handik eta, bide batez, afari ederra egiteko aprobetxatuko dugu.

Beno, besterik gabe, ondo izan eta hurrengora arte!

Hego-haizea eta usoak



JOSEBA ZUBELDIA

Urdaiaga

Udazkenean sartuta gaudela adierazten duten ezaugarriak ikus ahal izan dira azken egunetan: hego-haizea, zuhaitzetatik eroritako hosto ximelduak lurrian bueltaka, usoak pasatzen... Izan ere, azkenaldiko eguraldiak, hego-haize epelak, erreztu egin du aurtengo usoen pasatzea. Beraz, ehiztariak nahikoa gozatzan ari direla esan behar, uso dexente pasa baita gure inguruetan. Auzo honetara inguratzen den ehiztari kopurua handi xamarra izaten da, beraz entzuten den tiro hotsa ere bai. Goizetan ez da iratzargailurik behar izaten, goizean goiz hasten baitira tiro hotsak. Behin eguerdia iristean gehienak etxera bueltan, batzuk bazkaria irabazita eta besteak hurrengo eguna hobea izango den itxaropenarekin.

Beste gai bati helduz, esan behar, baserritarrak eta sagardozaleak hor ikusi ditugula hilabete honetan sagastietako sagarrak bildu eta sagardoa egiten. Sagar dexente bildu dute eta beraz ez da sagardo faltarik izango. Ea zer moduzko sagardoak ateratzen diren bada aurtan.



Azkenik, auzo honetara datorren bide bazterrak garbitzen ere ikusi ditugu. Mesede ederra egiten dio bide bazterriari, baina hala ere Santuenetik gora igotzean, kurba handia igaro bezain laister, sasi pila dago bide bazterrean eta honek errepidearen jarraipenaren ikusmena eragozten du. Horregaitik askotan ez da ikusten autorik datorren edo ez. Beraz sasi pila hau kentzeak kalterik ez.

Guzti hau esanda, adio esatea besterik ez. Hurrengorarte!

Frontoiaren inaugurazioa

Azkenean! Jada badakigu zein egunetan Aegingo den pilotaleku berriaren inaugurazioa: urtarrilaren 5ean.

Festak aurten asteburu bakar batean ospatu ditugu. San Praixkuak laburragoan izan ziren baina frontoiaren inaugurazioarekin beste asteburu baterako jai egitaraua iragarri genuen. Egitarauari buelta batzuk eman dizkiogu eta pilotari profesionalak ekarri nahi dira urtarrilaren 5eko ekitaldira.

Herri bazkari bat ere egingo dugu eta nahiz eta egun horietan hotza egin Aginagako bizilagun guztiak gonbidatuta daude. Denon artean aurre egingo diogu hotzari. Giroa alaitzeko ez dira bertsolariak faltako. Dena den, ospakizunak ez dira egun horretara mugatuko. Hurrengo egunetan ere bestelako kirol ekitaldiak antolatu nahi ditugu: mus txapelketa, sokatira...



Hurrengo bilera azaroaren 11n egingo dugu, astelehena. Apaiz Etxean bilduko gara 20:00etan. Azaldu, denok gonbidatuta gaude.

Beraz, agindutakoa beteko dugu urtarrilaren 5ean. Behintzat, erregeei ongi etorri beroa egiteko moduan izango da gure frontoia.

Aginaga



**OXKAR
SANTAMARIA**

Neguaren usaia

Egia esan behar bada, iazko urteko udazkenea pasatu zitzaigun, baina konturatzerako aurtengoak ere atzetik abiada batean harrapatu gaitu.

Zubietako zuhaitz ugari jada historik gabe daude, eta noski, hosto hauek guztiak belardietan eta bidean zehar zabaldurik daude. Egoera honek Zubietako bideak arriskutsu jartzen ditu, hezetasunarekin elkartzen bada batez ere. Kaltetuak mota guztietako erabiltzaileak gara: auto, oinezko, txirrindazaleak...

Orain dela bi hilabete inguru, guztion ahotan zebiltzan udan egin zituen eguraldi arraroak, baina badirudi orain, udazkenean, egiten ari direnak lotura gehixeago dutela denboraldiarekin. Temperatura bero batzuk egiten dituen arren, hotza ere egiten du, baita euri zaparrada batzuk ere.

Kexatzen ez direnak eta axolik ez zaienak Zubietatik barrena azken aldi honetan dabil-tzan kirolariak dira. Batez ere, korrikalariak

dira nagusi gurean egunero arratsalde gau alde-ra. Dakizuenez, azken egunetan pasatua zaigu plaza aurretik Lasarte-Oriako krossa. Bertan hainbat gaztetxo, gazte eta ez hain gazte zirenek hartu zuten parte, baina bakoitza bere erritmoan animo handiz. Azaroaren 10ean ere Behobia-Donostia izango dugu, eta hau pasatzean korrikalarien kopurua Zubietako bideetan asko jaisten da.



Zubietako



**ALEX
UDABE**

Hilaren 18an zozketatuko dira Agerialdeko etxebizitza sozialak

AGERIALDEN DAUDE LAU ETXEBIZITZA HAUEK. GARAI BATEAN MAIXUEN ETXEAK ZIREN BAINA DUELA BOST URTE ERRENTA SOZIALEAN UTZI ZITUEN UDALAK. EPE HORI AMAITU DA ETA AURRERANTZEAN ZESIO IZAERA IZANGO DUTE ETXEBIZITZA SOZIAL HAUEK. LEHEN 5 URTERAKO ESLEITU BAZIREN, HEMENDIK AURRERA URTERO EGINGO DA ZESIOAREN JARRAIPENA ETA KASUAN KASUKO BALORAZIOA.

Lau dira zozketatuko diren etxebizitzak. Lau horietako bat egoera berezietarako gordeko da (gizarteratze bidean diren toxikomano, preso edota heziketa prozesuan dauden pertsonentzat). Beste hirurak, ordea, bi pertsona edo gehiagok osatutako unitate edo familiei zuzenduta daude. Hileko alokairua 135,67 eurokoa izango da. Jada badira informazio eske Gizarte Zerbitzuetara jo duten herritarrak.

Bidezkoa den moduan, etxe faltan diren herritarrei eginiko eskaintza da hauke. Baldintzak eta salbuespenak antzak dira. Informazio gehiago Gizarte Zerbitzuetan jaso ahal izango duzue. Baina bada ezinbestekoa den betebeharrak: Usurbilen erroldatuta egotea, gutxienez azken bost urteko epean. Aurretik 10 urtez bertan bizi izana edo jaiotzez usurbildarra izatea ere onargarria izango da. Batzuek eta besteek, 4.890,70 eta 12.020,24 euro arteko diru sarrerak ziurtatu beharko dituzte. Epaimahaiak baldintza pleguetan agertzen den pun-

tuazioaren arabera esleituko ditu Agerialden kokatuta daude etxebizitza hauek.

Gizarte Zerbitzuetako arduradunek argitu digutenez, urtero errepasatuko ditu zesio hauek. Orain eskatzen ari diren dokumentazioa eskatuko zaie urtebeteko epean, eta, onuradunaren egoera ekonomikoa aldatu bada, Udalak zesioa bertan behera uzteko aukera dauka. Orain arte, bost urteko hitzarmenak izan badira, aurrerantzean urtez urte berri beharrezko zesioak izango dira. Onartu berri den araudiaren arabera, gehienez lau urteko emakidak edo zesioak izango dira.



URTERO AZTERTUKO DIRA ETXE HAUEN ZESIOEN BALDINTZAK.

ASKO DIRA HUTSIK DAUDEN ETXEBIZITZAK

Uurbilen etxebizitza bat alokatzea ez da lan erraza. Asko dira etxea alokairuan hartu nahian dabilzanak. Baina eskaintza txikia da eta, ondorioz, alokairuan ipintzen diren etxe apur horien prezioa oso altua da.

Merkatu librean saltzen diren etxebizitzaren salneurria ere ezinezkoa egiten zaio jende askori. Babes ofizialeko etxeak egin dira eta gehiago aurrikusitua daude. Baina bien bitartean arazoak hor dirau. Instituzioen ardura handia bada ere, asko dira hutsik dauden etxebizitzak. Eta jabeek ez dituzte alokairuan utzi nahi. Honek ez ditu gauzak errazten eta horrela zaila da irtenbide argi eta azkar bat topatzea.

ESTETIKA ZENTROA

LOURDES LARRAÑAGA

- Depilazioak
- Aurreragoko tratamendua
- Manikura
- Betileen permanentea eta tintea
- Azaleko garbitasuna
- Makilajea
- Masajeak
- Solariuma

Irazu kalea, 12-behea
Telf: 943 36 28 87



Kima
MASAJE LEKUA



Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

Zubietako ur sarea berritzeko erabakia hartu da

Azken bolada honetan ur-sareak buruhauste handiak eragin ditu zubietarren artean. Ur-hodidak oso zaharrak dira eta berritze-premian daude aspalditik. Arazo honi aurre egiteko, Udalak Eraiki SL enpresa jarriko du lanean. Zubietako Amiri eta Alamandegiz Zar tramuan ur edangarriaren sareko hodiak aldatu beharko ditu eta proiektuari ekiteko 270.601,48 euroko gastua onartu zen azken udalbatza plenoan.

Erabaki honekin Amiri eta Alamandegiz Zar baserrien arteko ur edangarriaren sareko hodiak aldatuko dira. Honi aurre egiteko, nahita nahiezko ubidearen zortasunerako ihardunbideari hasiera eman dio Udalak.

Ur sarearen egoera kaxkarra herri-



AGINAGAN ETA ZUBIETAN URGENTZIAZKO NEURRIAK HARTU BEHARIZAN DITU UDALAK.

tar eta udal agintarien buruhauste izan da azken hiabete hauetan. Urgentziazko bi egoera eman dira epe laburrean: Aginagan eta Zubietan. Aginagakoa bideratuta dago eta orain Zubietako tramu hori konponduko da. Baina arazoa ez da puntuala. Ur-sarea zahartuta dago eta laster ala berandu Udalak gai honi adarretatik heldu eta sokeneko erabakiak hartu beharko ditu.

MARKESINAK TXIKIERDIN

Urbil merkatalgunearen inguruan honako lan hauek egingo dira epe laburrean: Txikiardin, Urbil barruko errotondara iritsi aurretik eta gasolin-degi ondoan bi markesina eta bus geltoki bat ipiniko dira. Zebra bideak ere pintatuko dira eta Belartzako errotondatik datorren errepidean etengabeko marra ere marrazteko baimena eman du Udalak.

LANKIDETZA HITZARMENA LASARTE-ORIAREKIN

Lasarte-Oriako Udalak Atsobakar arean parke botaniko bat egiteko asmoa du. Proiektuak Usurbilgo lur zati bat ere ikutzen duenez, Lasarte-Oriako Udalak Usurbilgoari erabilera baimena eskatu dio. Bi udalek sinaturiko lankidetzaren hitzarmenean jasotzen dira bi udalei dagozkien betebeharrak eta eginkizun guztiak.

Galdeiozu!!



NIKO BENGOTXEA,
KULTUR
ZINEGOTZIA

KULTUR ETXE BERRIAREN ERAIKITZE-LANAK ASPALDI IRAGARRI ZIREN. BAINA EZ DA MUGIMENDURIK SUMATZEN. NOIZ BOTAKO DA UDARREGI ZAHARRA ETA NOIZKO EGONGO DA MARTXAN KULTUR ETXE BERRIA? J. A. I. USURBIL

Obrak azaroaren 4ean hastekoak ziren, hau da, jada hasi dira ingurua itxi eta eraikuntza botatzeko aurrelanak. Obrak amaitzeko epea 17 hilabetekoa izango da, baina obrak amaitu eta gero, kultur etxea ekipatu egin beharko da. Ekipatze lanek hilabete batzuk beharko dituzte, 6 hilabete kalkulatzen baditugu, 23 hilabete inguru beharko dira. Hau da, kultur etxearen inaugurazioa, 2004ko azaroan. Data hori aproximazio azkar batekin eginga dago, berandutu daitekela alegia. Gero arte.

Bidali zure galdera eta zehaztu nori zuzendua dihoan:

Noaua! - Borda Berri, 3 Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil / noaua.k.e@euskalnet.net

Ehiztarientzat pasa ziren garai onenak

Garai onenak pasa ziren. Ondorio hori atera daiteke Jose Luis Ibaregurenekin hizketan aritu ostean. Hala ere, jaiegutetan oraindik entzuten dira tiroak han eta hemen. Baina mugak gero eta gehiago dira. Eta ehizak ere beherantz egin du narbarmen. Hori guztia argitu asmoz bildu gara ehiztari amorratu honekin.

Jose Luis Ibaregurenek ia 40 urte egin ditu ehizan. Hasi zenetik hona gauzak asko aldatu direla aipatu digu Jose Luisek: "Gu ibiltzen ginenean diferentia zen. Pazientzia gehiago zegoen lehen. Gaur egun ez zaie arrimatzen uzten. Zeozer ikusi orduko tiroka hasten dira". Gainera, ez zegoen gaur egungo aukerarik. Kartutxoak baziren, baina ez horiek eskuratzeko orain ditugun erraztasunak. Ehiztari honen ustez, "orain kartutxoa sobran da eta ehiza faltan". Ez hori bakarrik, lehen kotxe gutxi zegoen. Errekaz erreka ibiltzen ziren txakurrekin. Orain gazte jendeak ibiltzeko gogo gutxi dauka. Kotxearekin ahal den bertaraino iritsi eta segituan tiroka hasten dira.

Jose Luisek esperientzia du alde. Badaki zertaz ari den. Eta nostalgiaz gogoratzen ditu duela hiru hamarkadako garai oparoak. 600 pieza bildu zitueneko eguna ondo gogoan du oraindik. "Guk urte ederrak harrapatu genituen. Kotxea bagenuen, kartutxoa nahikoa... 1960-1980 urteak izan ziren urte onenak. Burgosen, Salamancan, Zamoran... leku guztietan euskaldun jendea bazen. Hura ilusioa izaten zen! Eta kotxe-ilarak? Paliza ederrak ere hartu izan ditugu. Goizean hasi eta ilundu arte. Eperra ez da etortzen, zeorrek joan behar duzu bila!". Zergatik eman da jeitsiera hori? Prentsak duela gutxi ekarri zuen datua: 6.000n jaitsi da lizentzia kopurua



GAUR EGUN EZINEZKOA LITZATEKE HORRELAKORIK IKUSTEA. 200DIK GORA PIEZA BILDU ZITUZTEN JOSE LUIS IBAREGURENEK ETA BERE KOADRILAKOEK SAIO BAKARREAN. ARGAZKIA 70. HAMARKADAKOA DA.

Gipuzkoan.

Lehen errazagoa zen. Lizentziak Estatu osorako balio zuen. Orain erki-dego autonomiko bakoitzaren baimena behar da. Egia da lizentziak ateratzeko, baimenak berritzeko zailtasunak handiagoak direla. Baina arrazoiak bestelakoak ere badira. Jose Luis Ibareguren badu teoria bat: "Lehen afizio gehiago zen. Besterik ez zen".

!!
"LEHEN AFIZIO
GEHIAGO ZEN,
BAINA BESTERIK EZ
ZEN"
!!

Bestelako afizioak ditugu orain. Baina Administrazioak ere bestelako mugak jarri ditu. Egutegiarena, esate baterako. Jose Luisek dioenez, "lehen dena libre zen, denentzat tokia zegoen eta eperra ere nahikoa izaten zen. Orain, berriz, librean ez dago egiterik. Egun osoan nahi izanda ere, ez dago egiterik. Eguerdirako utzi beharra dau-

kazu. Lehen ez zen horrela, egunero ibiltzea zegoen. Nafarroan aurren urtarilaren 12rako fuera! Eta azaroaren lehenean ireki zen. Ehizara zenbat joaten zara? Gabonetan ez zara joango!".

Segurtasun neurriak ere inoizko handienak dira. Jada ezin da tiroka ibili nahi den tokian, nahi den orduan. Jose Luisek, hala ere, ez du neurri hau egoki ikusten. "Lehen baserritarrak etxean bertan ibiltzea zeukan. Ez da horrenbesteko pekatuik, ezta? Orain bizi guztirako kondetatuta dago".

Baina ehiztariak beti egongo dira. Hori bai, beste leku batzuetan bilatu dituzte bertan ukatu zaiena. Horregatik asko dira ehizaren aitzakian atzerria jo dutenak. Turkian ez omen da horrelako mugarik. Egunez, gauez ibili daitezke ehizan. Orain jubilatua Benidormera bezala, ehiztariak Ukranira joan ohi dira. Ehiza ez da falta han eta ez da hemengo oztoporik hangor lurretan.

Mugek gora egin dute. Hori argi

geratu da. Baina hegazti kopurua ere jaitsi egin da nabarmen. Zentzu horretan, ehiztariak latzak entzun behar izan dituzte. Dena den, Jose Luis Ibarguren ehiztariak bestelako irakurketa egiten du: "ehiza ez du ehiztariak galdu. Herbizidak galdu du ehiza. Telebistan ikusi nuen saio batean, Ingalaterran birigarroa hiritara sartzen ari zen sail handitan herbizidak botatzen zirelako".

Trabak traba, Jose Luis oraindik gustura dabil ehizean. Urruti joan gabe, hemen ere tarteka badira kolpe ederrak. "Urriaren 20koa kolpe ona izan zen. Urtero izaten da usoetan baten bat, baina azken bolada honetako onena izan da", azaldu digu Jose Luisek. Hala ere ez omen da usozalea, bereziki eper bila ibili izan da. Eta herrian ere ezaguna da plater tiroketan trebea izan baita: "tiro al platon 500 bat kopa badituz".

Pozik dago ehizan egindakoaz. "Zorte ona izan dut, eta ez dut istripu bat bera ere izan. Eta gainera txintxo ibili gara leku guztietan, inoiz harrotu gabe".



JOSE LUIS IBARGUREN 13 URTEREKIN HASI ZEN EHIZAN.

Oraindik ikusiko duzue txakurra lagun, eskopeta eskuan, eper bila. Ez dira garai onenak baina berak dioen moduan, "jai goiza nonbait pasa behar!".

USURBIL, HERRI EHIZTARIA

Duela gutxi prentsan agertu da datua. 6.000 lizentzia gutxiago atera dira Gipuzkoan.



Gaur egun, 21.000 dira ehizarako lizentzia dutenak. Arrantzak zaletu gutxiago ei ditu, guztira 6.720 lizentzia.

Datu hauek gure herrira egokituz, 270 usurbildar dira ehiza lizentzia eskuratu dutenak. Eta arrantzarako, 52. Gipuzkoako Foru Aldunditik jaso ditugun datuak dira hauek. Beraz, honen arabera 270 ehiztari, 270 arma daude Usurbilen. Esan dugu, ez dira ehizarako garai onenak. Baina hala ere datua hortxe da. Norberak atera ditzala kontuak...

Ehiza egutegia, gero eta laburragoa

Ehiztariak etsita dabilta azken urteotan. Gero eta zonalde gehiago dira babestuak daudenak. Neurri honi esker, nahi duten tokian tiroka aritzeko ahalmena galdu dute. Lizentzia berritzeko baldintzak, gainera, gero eta gehiago dira. Ez hori bakarrik, lehen lizentziak Estatu osorako balio bazuen, orain, beste erkidego autonomiko batean aritzeko tokian tokiko agintearen baimena eskuratu beharra dago.

Eta hori gutxi balitz, ehizarako egunak ere murriztu egin dira. Horrela azaldu daiteke iaztik hona lizentzietan eman den beherakada.

EHIZA MOTA

EGUTEGIA

EHIZA XEHEA

Ehiza librea debekatua.

* Untxia baimen bereziarekin.

- Usoak eta birigarroak paseko ohizko pasalekuetan.

- Faisaia eta eperra, ostegun, larunbat, igande eta jaiegunetan.

GIPUZKOAN

Irailak 22/ Urtarrilak 31.

Urriak 12/ Urtarrilak 31.


EHIZA NAGUSIA

Basurdea, orkatza

Urriak 12/ Urtarrilak 31.

URETAKO HEGAZTIAK

Urriak 12/ Urtarrilak 31.



TXIRIBOGA
